II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Getxoko Udala

**2018ko ekitaldirako Zerga Egutegia**

2018ko apirilaren 24an Alkatetzak agindutako 1690/2018 Dekretuaren bidez eta 2018ko maiatzaren 2an Alkatetzat agindutako 1766/2018 akats materialaren Zuzenketako Dekretuaren bidez ondorengo Zerga egutegia onartu da 2018ko ekitaldirako:

1) Ekainaren 1etik ekainaren 30era arte. Ondoko hauek borondatez ordaintzeko epea: Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ), Ondasun Higiezinen gaineko Zerga (OHZ), Ibilgailuak espaloien bidez finken barrura sartzeko eta aparkalekuak erreserbatzeko tasa (Pasabideak), Taxien aparkalekua erreserbatzeko tasa, Kiosko bidez bide publikoa okupatzeko tasa, Ibilgailuak udal bide publikoetan aparkatzeko tasa (egoiliarren urteko txartelak: TAO), kutxazain automatikoak, terraza bidez bide publikoa okupatzeko tasa.

   Helbideratutako ordainketa borondatezko epea amaitu ondorengo lehenengo egun baliodunean (uztailaren 2a) egingo da. Helbideratzeko eskabideak maiatzaren 31ra arte onartuko ditugu.

   Ordainagiri horiek «nahierako ordainketa» modalitatean ere ordain daitezke, baldin eta udal zerga ordenantzan onetsitako baldintzak betetzen badituzte. Hiruhilekoetan zatitu daitezke (mugaeguneratzeak: 06/01, 07/02, 09/14 eta 11/02), seihilekoetan (06/01 eta 10/26) edo ordainketa bakarrean ordaindu (09/14), betiere bankuko helbideratzearekin.

   Nahierako ordainketa egiteko eskaerak martxoaren 1a baino lehen tramitatu behar dira.

   Epemuga jaiegunean egokitzen bada, epemuga horren hurrengo lehenengo lanegunera pasako da.

2) Berau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea adostea.

Getxon, 2018ko maiatzaren 3an.—Ogasuneko zinegotzi-jauna delegatua, Ignacio Uriarte Gorostiaga

eek: BAO-2018a089-(II-2093)